

Astekaria

# BARREN

elgoi

## EMAKUNDE Saria BARRENERA



San Frantzisko, 40 - Tel. 74 06 87 - ELGOIBAR



IRUDIA - SOINUA  
ELEKTRAGAILUAK

**ARTEGI**

**GABONETAKO  
ESKEINTZA BEREZIAK**

Larunbat arratsaldetan ere irekita

## 3 LAU HANKATAN

"BARREN taka-taka hasi eta urte osoan etorri da. Hazi egin denez, zapata haundiagoak beharko ditu" **Hasier Etxeberria.**

## 6 ERREPORTAIA: GOARDIAKO FARMAZIA

Urtarrilaren 1etik aurrera, herriko farmaziak bailarako txandakako sistemaren barruan sartuko dira.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER IRUDITZEN ZAIZU GOARDIAKO FARMAZIA BAILARAKOA IZATEA?

**Maria Pilar Etxeberria:** "Farmazien txandak bailara mailan egitea ez da hasera batean pentsa daitekeen bezain gogorra".

**Kristina Garcia:** "Goardiako zerbitzua, egunero, bertan herrian edukitzeak abantaila suposatzen du".

## 12 BERBETAN: Nico Molina

"IDEIAK DIRUAK MUGATZEN DITU"

## 14 KIROLA

GAIA: *LAGUN TALDEA*, 94KO DENBORALDIRAKO PREST

ELKARRIZKETA: **Zigor Esnaola**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

CARITAS: BEHARTSUAEN BEHARREI ERANTZUTEN

## 17 KULTURA

MUSIKESKOLAKO IKASLEAK BIKAIN AKORDEOI LEHIAKETETAN

TXANDAK

### FARMAZIAK:

18, larunbata: **ETXEBERRIA**

19, igandea: **ETXEBERRIA**

20, astelehena: **YUDEGO**

21, asteartea: **YUDEGO**

22, asteazkena: **YUDEGO**

23, osteguna: **YUDEGO**

24, ostirala: **ORMAZABAL**

### OKINDEGIAK:

19, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC).....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547


### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua .....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**

Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea**

Elgoibarko Udala

**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldeg

**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementeria

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Jasone Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**Tirada:**3.000 ale

**Lege gordailua:**SS-1.038/92

**ISSN:**1133-021X


elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.

**L**AU HANKATAN



**Hasier Etxeberria**

# Agur, Ben-Hur

**A**zkena dut aurten. Hauxe da azken artikulua **BARREN**en. Nere txanda bukatu da. Kitto. Akabo. Ez naiz lau astetik behin pelmada gehiagorekin etorriko. Nere hitzik gabe ere, ederki bizi daitekeela ikusiko duzue hemendik aurrera. Igoal, hobeto, gainera. Halaxe dira gauzak.

Bukaera guztietan esan ohi da gaizki esandakoak barkatzeko, eta niri ere halaxe tokatzen zait orain. Bainan ez, ez barkatu ezer. Barkamenak ahaztura dakar askotan, eta ahaztura, oi ene, hildakoen hornidura da. Hobe izango da akatsak adieraztea, gaizki egindakoak, oker idatzitakoak, neuri esatea. Hala bakarrik ikañten baita bizitza honetan.

Baina, aldi berean, urte honetan zehar, gustuko zer edo zer irakurri baduzu nere hitzetan, emaidazu musu. Esaidazu holako edo halako hitzek kilikili egin dizutela arimaren azalean. Esaidazu kolore berririk ikusi ote duzun nere esaldiren batean, usain berezirik antzeman nere hitzen baten atzean.

Haragizkoak baikara idazleak. Hezur eta mamizkoak, zu zeu bezala.

Eta izpirituaren gozamenen gainetik, nahiago ditugu laguneren ferekak, adiskideen begiradak, zuk zeuk bezala.

Erabat joan aurretik, ordea, zuri irakurtzeagatik ematen dizkizudan bezalaxe, egunez-egun **BARREN** egin dutenei eskerrak eman nahi dizkiet, halako tresna egokia hain era bikainean aurrera ateratzeagatik. Batzutan segur, bestetan zalantzarik, astero egin dutelako errealitate, zuk eskutan daukazun letrazko mundu txiki hau. Animatu egin nahi ditut, aldi berean, politikari eta babesleak. Beraiek dute eta azken hitza. **BARREN** taka-taka hasi eta urte osoan etorri da. Hazi egin denez, zapata haundiagoak beharko ditu orain, eta diruak bildu eta banatzen dituzuenok erosi beharko dizkiozue, maite baduzue behintzat. Zeuen eskuetan dago ume txiki honen etorkizuna, sano eta eder bizi ala hanka hutsik lagatzea.

Eta desio bat azkenez. Jai hauetan eta beti, izan dezagula denok, askatasuna, pakea eta batez ere poza. Elkarren ondoan eta elkarrekin, bizitzari aurre egiteko poza.

*Eusko Jaurlearitzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**GATZA: ateneoan!**

Elgoibarko herrixan **GATZA** falta jaku. Denetarik dakau, bai horixe: metalak lantzeko lantegixak pilla bat, mozkorrak harrapatzeko tabernak barra-barra, musikarako musikeskolak, dantzalekuak,...

Baina, halaxen ere, Elgoibarko herrixan **GATZA** falta jaku. Guztixok ligatzeko gogo asko? Bai horixe, bai oiñ eta bai len, beti bezela! Morbua, kotilleua, berba eitzeke gogua? Bai horixe, nola ez ba? Oiñtxe, eta baitxa aspaldixan ere.

Baina, halaxen ere, Elgoibarko herrixan **GATZA** falta jaku. Girua al dauan **GATZA** egoteko? Baietz ba, etxuat esan ezetzik beñipeñ!

**GATZA** eta piperra falta jakula esatiakin bakarrik ezjau ezertxo ere eitxen. Beraz, Elgoibarko herrixari **GATZA** sortzeko oinarrixak bihar

jituau jarri.

. Nortzuk? **G a z t e a k** (neska-mutilak):

. Zertaz? **Arteaz.**  
**Teknikaz.**  
**Zientziaz.**

. Non? **Ateneoan.**

Nola? Tertulian: Ezta-baida(tzen)-Kritika(tzen).

**Elgoibarko GATZA ateneoaren eragileak, 1993.**

**Ez itxi EGIN**

Azken egunotan **EGIN** egunkariaren inguruko gertakizunen aurrean **ZAZPIKI** irratian zenbait gauza adierazi beharrean aurkitzen gara.

Ezin dezakegu ulertu, ikuspuntu politikotik ez bada, **EGIN** istearren zenbait "demokrata" egiten ari diren kanpaina. Erreflexioa beharrezkoa da eraso hauen aurrean.

**EGIN** istea lortzen badute zer geratzen zaigu?

Komunikabiderik ausartuko al da era guz-

tietako kolektibo eta elkarteri salaketak, kezak e.a. adierazteko bidea ematen?

Komunikabiderik ausartuko al da zenbait elkarte politikoren, zenbait enpresa gizonen,.. gehiegikeriak salatzen?

Komunikabiderik ausartuko al da beraien saldatak ematen dizkieten politikoen aurka hitza jasotzen?

Beraz, "sistema demokratiko" hau, politiko eta zenbait enpresa gizonen diktadura bihurtuko da. Hori bai, "diktadura demokratiko" bat.

Informazio eta adierazpen askatasunaren ize-nean ezin gaitezke geldirik gera, zenbait politikaririk daukaten jarreraren aurrean. Beraz, **HITZ-EGIN** plataformak antolatu duen manifestaldira joateko eta **EGIN**en inguruan egingo diren ekin-tzetan parte hartzeko deialdia luzatu nahi dizuegu. Manifestaldia

**E**SKUTITZAK

abenduaren 18an izango da Bilbon.

**Zazpiki Irratia**

**EGINen aldeko manifestazioa**

Adierazpen askatasuna, **EGIN**en defentsan datza Herri egunkari proiektu bezala. Garai hauetan norberaren pentsakera ere finkatu nahi dute, eta horretarako betikoek egunkari bat ixiltzea nahi dute, bere erru bakarra ezberdina izatea delako.

**EGIN**en aldeko batzordeak elkartasun adierazpenak eskertzen ditu eta gogoratu nahi dizuete larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 6etan, Bilbon izango den manifestaldira joateko autobusa prestatu dela, arratsaldeko 4,30etan, Plaza haunditik irtengo delarik.

**EGINen Aldeko Batzordea**

**EROSO**

**BEROGAILUEN INSTALAKUNTZA**

Jose Elozegi, 105  
20 016 DONOSTI

● **GAS NATURALA** ●

**ESKAINITZA BEREZIA**

Instala ezazu **ORAIN** berogailua eta koloretako **TELEBISTA BAT** oparituko dizugu!

14 " Samsung markakoa eta distantziarako mandoarekin

Eskeintza hau 1993ko abenduak 31 arte izango da

Dei egiguzu **(943) 39 11 05** telefonora

**SKANDALO**

**O I H A L A**  
eta  
**MERZERIA**

**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.



**A**ste honetako erretratua **Margarita Estartak** lagatakoa da. Erretratu zaharrek ere hartu digute Gabon usaina. Berak esan digunez "1949. urtean ateratakoa izan leike". Erretratuan azaltzen direnak, egun 59 urte dituzten 12 urteko mutil koxkorak dira. Orduan bai sasoia!

Margaritak esan digunez Pilar ikastetxeko jaiotza eta ikasleak dira erretratukoak. Ikastetxean jaiotza prestatu ondoren, herriko kaleetan zehar ibiltzen ziren Gabon kantak abestuz.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen

diren morroskoak: (goitik hasita eta ezkerretik esku-mara),

Goikoa: **Inazio Mugerza**

1. ilaran: **Ciriaco Aizpiri, Angel Aizpitarte, Jose Mari Osoro, Iñaki Larrañaga, Iker Argarate, Joakin gabilondo, Valentin Peñalba eta Manolo Zabala.**

2. ilaran: **Luis Mari Iriondo, Cruz Arriola, Ramon Arozena, Santi Urain eta Amadeo Aizpitarte.**

Aurreko lauak: **Miguel Ansola, Angel Etxeberria, Miguel Arrieta eta Iñaki Alvarez.**



## OLENTZERO 93

**Abenduaren 24an, ostirala.**  
**Goizeko 11etan, Maalako Parkean**

*Olentzerok berari idatzitako eskutitz guztiak jaoko ditu.*

**ANTOLATZAILEA:**  
ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkarte

**LAGUNTZAILEAK:**  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA




Antolatzaileok eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizue antolakuntzan lagundu diguzuenoi

PUB



elgoibar

## Fotero

**OKINDEGIÀ**  
**OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

# Goardiako farmazia

Urtarrilaren 1etik aurrera, herriko farmaziak bailarako txandakako sistemaren barruan sartuko dira. Neurri honek eragin zuzena izango du herritarrongan eta, dudarik ez dago batek baino gehiagok izango duela zer esanik gai honen inguruan. Auzia, beraz, kalean da eta guk, aurrerantzean txandak nola izango diren jakiteko aukera izan dugu.

**Elgoibarko** lau farmaziek, Plaentxiko biek eta Mendaroko farmazia bakarrak modu bateratuan egingo dituzte urtarriletik aurrera gaueko txanda eta igande arratsaldeko txanda. Txandak bailaraka egitea, beste herri batzuetan aspaldian hedatuta dagoen funtzionamendu modua da. Farmazien kolegioak bateratzeko joera hedatzen ari zela ikusirik, gauza bera egitea gomendatu zien Elgoibar, Plaentxi eta Mendaroko farmaziei. Hasera batean, herriko farmaziek Eibarkoekin batera egin nahi zituzten txandak baina haiek Ermukoekin bat egitea erabaki zuten.

Plaentxiko farmaziek bailarako txanda sistema hau sortzearen esfortzu handia

**Txandak bailaraka egiteak, gaueko eta igande arratsaldeko goardietan soilik izango du eragina.**



Txanda berriekin, botikak herritik kanpo erosi beharko dira.

egin izan dute. Beraiei, bi farmazia bakarrik izanda, bi astetik behin, txanda egitea tokatzen zitzaien, eguneko 24 ordukoa; eta neurri berri honekin, berriz, lau hilabete-ko atsedenaldia har dezakete. Gehien irabazten dutenak, dudarik gabe, Plaentxi-

ko bi farmaziak dira. Mendaroko farmaziak lehenago ez zuen goardiarik egiten eta mendarotarrek Elgoibarrera etorri behar izaten zuten larrialdiren bat egonez gero. Elgoibarko farmaziek ere, asko irabaziko dute txandakako sistema berri honekin.

**OIERKI** IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

**BANCO DE VASCONIA**

*Beti zure zerbitzura*

Errosario 33, Elgoibar. Tel. 74 05 62 - 74 05 66

Herrian lau farmazia daude eta bakoitzak 24 orduko txanda egiten zuen aste oso baten zehar. Hurrengo astean beste farmazia batek egiten zuen txanda, eta horrela, gaintzeko farmaziek txanda egin arte. Farmazia bakoitzari, beraz, hilean behin txanda egitea tokatzen zitzaion.

**Txandak**

Txandak bailaraka egiteak gaueko eta igande arratsaldeko goardietan soilik izango du eragina. Egunean zehar, txanda herriko farmazia batek egingo du, hau da, norbaitek eguerdian eztarri-rako botika erosi behar badu ez du Plaentxi edo Mendarora joan beharrik izango; herriko farmazia bat goardian egongo da.

Bailarako txanda sisteman arabera, zortzi astez osatutako egutegia osatu dute. Lehen lau asteetako txandak herriko lau farmaziek egingo lituzkete, bakoitzak aste batean. Ondorengo hiru asteetakoak Plaentxiko farmaziek egingo lituzkete eta gaintzeko astekoa Mendaroko farmaziak. Zortzi asteak egiten direnean, Elgoibarko farmaziak berriro hasiko lirarteke errondarekin. Herri-tarrek, beraz, otsailera arte ez dute kanpora joan behar-ko botikak erostera.



↳ Urtean zehar, errezetadun 15-20 larrialdi bakarrik izaten dituzte herriko farmaziek.

**Larrialdiak**

Herriko farmazietako arduradunek esan digutenez, gauetan eta asteburuetan benetako larrialdiak oso urriak izaten dira. Jendeak benetako larrialdia duenean Anbulategira jotzen du. Kasua oso larria bada medikuak Mendarora bidaltzeñ du gaisoa; bestela, errezeta egin eta farmaziara bidaltzen du botikaren bila. Horrelako kasuak gutxienak izaten dira, urte osoan zehar 15-20 kasu baino ez. Farmaziako langileek gaueko goardiak farmazian bertan egiten dituzte eta gau askotan, ia gehienetan, ez dute deirik izaten. Igande arratsaldetako

goardietan esaterako, konpresak, haurrentzako jatekoak edo aspirinak bezalako gauzak saltzen dira; larrialdiak apenas izaten diren. Sistema honek guztiz lotuta egotea suposatzen zuen farmaziako langileentzat.

Dena den, farmaziako arduradunek esan digute, garai batetik ona, asko aldatu dela herritarren jokabidea. Lehen, guztiz arrunta zen gauero larrialdi bat edukitzea eta gainera, errezetarik gabekoa. Gaur egun, alor horretan jendeak asko ikasi omen du. Gaueko larrialdiak oso eskasak izaten dira eta ia denak errezetarekin.

**Igande arratsaldetako goardietan, konpresak, haurrentzako jatekoak edo aspirinak bezalako gauzak saltzen dira**

**Kide**  
**leapaindegia**

HELBIDE BERRIA: San Frantzisko 19, 1 esk. ☎ 74 00 69

**EXMAHE S.L.**  
MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESCLUSIBAK

<b>BULEGOAK:</b> Azpilgoeta, 3 TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21 20 850 MENDARO	<b>ALMAZENA-TAILERRA:</b> Pedro Muguruza, 25 TEL. 74 36 46 20 870 ELGOIBAR
---	---

# Zer iruditzen zaizu goardiako farmazia bailarakoa izatea?

**Datorren urtarrilaren 1ean, gure herrian, Plaentxi eta Mendaron bezala, farmazien goardiak bailaraka egiten hasiko gara. Dena den ez da hasera batean pentsa daitekeen bezain gogorra izango jendearentzat.**



izan da. Izan ere, Elgoibarko zein Plentxi eta Mendaroko farmaziek aspaldi ikusi genuen gure goardietan larrialdiak oso eskasak zirela. Gainera, gure inguruko herri garrantzitsuenak duela asko hasi ziren bailaraka egiten gaueko eta igandetako goardiak. Adibide bezala, batzuk aipatuko ditut: Eibar eta Ermua, Deba eta Mutriku, Bergara eta Arrasate, Zumarraga, Urretxu eta Legazpia.

Inork zerbait gehiago jakin nahiko balu eguneko zein gaueko zerbitzuari buruz, herriko edozein farmaziatan gustura emango zaio nahi adina argibide.

**Maria Pilar Etxeberria**  
(Erredakzioan itzulia)

**F**armazien txandak bailara mailan egitea igande arratsaldeko eta gaueko goardietan bakar bakarrik izango du eragina. Honek zera esan nahi du: egunez, gaueko bederatiak arte, Elgoibarko farmazia guztiak irekita egongo direla.

Gaueko goardiak eta igande arratsaldeko txandak horrela izango dira urtarrilaren 1etik aurrera: Lehen lau asteetan Elgoibarko lau farmaziek egingo dituzte gaueko eta igandeko goardiak, eta hurrengo lau asteetako txandetaz Mendaro eta Plaentxiko farmaziak arduratuko dira. Erabaki hau hartu izan badugu gure herrietan ikusi dugun egoera batek bultzatuta



**Pentsa dezagun une batez, gaueko 10etan edozein etxetan gerta daitekeen egoeraz; bapatean ez zara ondo sentitzen, medikuarengana joatea erabakitzen duzu, ambulategira joan ondoren medikuak lau orduetik behin sendagai bat hartzeko esaten dizu eta lehen bait lehen hastea komeni zaizula, zure egoera hobetu ahal izateko.**

**E**rrezeta hartu eta botikara zoaz eta heltzean, hori sorpresa! Kanpoko botika batetara joan beharra. Norberari tokatu behar, hau zorte txarra!, ez duzu kotxerik, ordu horietan ez dago autobusik, ezta trenik ere, taxa hartu behar, hau ere filigrana asko egin ondoren eta heltzean ordaindu egin behar, noski.

Egoera imaginario hau errela izan daiteke. Dударik gabe, sistema berri hau martxan jarri dutenek, euren arrazoi guztiz errespetagarriak izango dituzte eta ziur nago larrialdietako zerbitzuari buruz nik baino askoz gehiago dakitela, baina garbi dago, bestalde, herritar arruntak zerbitzu publiko baten galerak ez gaituela pozten. Aurrera joan beharrean, atzera goazela dirudi. Agian ohitu arte izango da, egia bait da lehen, larrialdietako zerbi-

tzu denetarako erabiltzen zela eta gaur egun larrialdietako errezetarekin bakarrik erabiltzerakoan, zerbitzu hori jende gutxiagok erabiltzen duela. Hala eta guztiz ere zerbitzu hori, egunero, bertan herrian edukitzeak, abantaila bat suposatzen du eta kentzeak desabantaila, kanpora joan behar izateak ekartzen dituen arazoekin, (kotxearen beharra...).

Dena dela, horrela izango denez, hobe dugu egoera horretaz kontzientziatzea eta urtariletik aurrera zerbitzu berri horren beharra izanez gero, lasai hartu eta aurrera! Hala eta guztiz ere, hobe gutariko inork ez badu zerbitzu horren beharrik izaten. Ea urte berriak osasun ona ematen digun eta ez dugun larrialdietako zerbitzuen beharrik, ez herrian ezta kanpoan ere.

**Cristina Garcia**

**Kartutxo Pub**

S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

**TRUK KAFETEGIA**

San Frantzisko 26, behea  
Tel: 74.26.21

**CAFE PUFF TEATRO**

**Pub PELOUSE**

San Frantzisko, 43  
Tel: 74 20 40

**magu's**

ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91



**E**TA ZURE USTEZ?

**Zer iruditzen zaizu goardiako farmazia bailarakoa izatea?**



**Pilar Ramos**  
49 urte, etxeoandrea  
Herritik kanpo irten behar izatea ez zait ondo iruditzen. Igande arratsalde edo gauetan bakarrik bada ere, ez zait ondo iruditzen.



**Alfonso Migales**  
27 urte, aseguru saltzailea  
Nik ez dut larrialdirik izaten baina pertsona edade-tuen eta umeen kasuan arazo gehiago ikusten dut. Herritik mugitzeko modua eduki behar da.



**Migel Ibañez**  
73 urte, jubilatua  
Gu nagusiak gara eta bakarrik gaude. Gainera, Arrasaten badakit kexatzen ari direla. Autorik ez daukagu eta nola joango gara beste herri batera!



**Maite Olamusu**  
35 urte, etxeoandrea  
Oso gaizki. Larrialdi bat badaukazu Plaentxiraino joan behar! Gaisotasun luzeak dituenarentzat gaizki. Zerbitzuak herrian bertan eduki behar dira.



**Francisco Vila**  
51 urte, torneroa  
Hiritar bezala gaizki dagoela iruditzen zait. Neurria ez da batere ona eta oso inkomodoa. Hala ere, arrazoi bat egongo dela pentsatzen dut.



**Carmen Moulian**  
73 urte, jubilatua  
Larrialdi bat badaukat Mendarora edo Plaentxira? Oso gaizki. Larrialdirik ez dut eduki orain arte baina tokatuko balitzait, oso gaizki.

**EIBAR**

**OSASUNDEGIA**

- Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04
- |                           |                          |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia            | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia            | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia           | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia            | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia            | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina         |                          |

**Logopedia Zentroa**



**Isabel Gil Arrocha**

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B  
Tel. 11 84 71 EIBAR**

## Gabonak euskaraz

Udaleko Euskara Zerbitzuak Gabonetako oporretan euskaraz jolasteko programa antolatu du hilaren 27, 28, 29 eta 30 eta urtarrilaren 3, 4 eta 5ean. Egun hauetan saio bereziak egongo dira OHoko 2. eta 3. mailako haurrentzat: hilaren 30ean "Gorakada" taldeak txontxongilo saioa eskainiko du eta urtarrilaren 4ean, barre egiteko aukera ezin hobea izango dute Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoekin. Saioak goizeko 10,30etatik 1,30etara bitartean izango dira Kultur Etxean.

## La Salle-Azitaineko ikasle ohien fundazio asanblada

Larunbat honetan, hilak 18, La Salle-Azitain eskolako ikasle ohiek Asanblada Nagusia egingo dute La Salleko ikasle ohien elkartearen sortzeko asmoz. Bileran, Estatutuak onartu eta zuzendaritza batzordea aukeratu-ko dira. Antolatzaileek, interesatuta dauden guztiak bileran parte hartzeragonbidatu nahi dituzte. Asanblada eguerdiko 12,15etan izango da La Salle-Isasi eskolan.

## Bandaren Gabonetako ekitaldiak

Udal Musika Bandak kontzertu bat emango du igandean, hilak 19, Ikastolan, eguerdiko 12,30etan. Jose Antonio Osororen ardurapean honako obra hauek joko dituzte: "Marcha Militar", "Cuadros de una exposición", "La Bruja", "Carpenters in concert" eta "Mesias Sarritan". Gabon egunean, iluntzeko 6:45etan, kalejiraren ostean Gabon kantak joko dituzte Kultur Etxearen aurrean eta parrokiaren parean.



**Herriko** jubilatuek ekintzaz beteriko astea iragan berri dute. Argazki-ko bazkariaren ostean omenaldia egin zitzaion 80 urtetik gorako herritarrei. Aste osoan zehar hitzaldiak, zozketak, txokolatada eta beste zenbait ekintza izan dituzte. Astea bukatzeko, dantzaldi ikusgarria izan zuten guass dantza-lekuan. Gure edadetuek argi erakutsi dute oraingo honetan adinik ez dagoe- la ondo pasatzeko.

## Olentzero 93

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek haurren Olentzeroa antolatu du Gabon egunerako. Iaz bezala, Maalako parkean hasiko da goizeko 11etan, ordubatak inguruan Plaza handian amaitzeko. Bi ordu horietan kantatu, dantzatu eta bestelakoak egiteko aukera izango dute animatzen diren haurrek. Olentzero gure artean izanik goxokiak ere ez dira faltako. Bukatzeko, antolatzaileek esan digutenez, "Olentzerori eskutitzak idaztera animatu nahi ditugu haur guztiak, Olentzerok eskutitz guztiak jasoko baititu".

## BARREN sariak

Hilaren 24ean, BARRENeke urtebete egingo du. Ospatzeko, BARREN sarien lehen edizioa antolatu da. Emango diren sariak honako hauek izango dira: publizitatearen atalean, BARRENe bere burua iragarri duten bi etxe sarituko dira; elkartearen atalean, herriko hiru elkarteri emango zaie saria. Beste sariak, aldizkariaren atalik onenarentzat, argazki zahar politenarentzat, *Arrazoiak Erdibana* ataleko kolaborazio egokienarentzat eta erakunde publiko laguntzaile batentzat izango dira.

Sari banaketa hilaren 24ean izango da, eguerdiko 12,30etan, Udaletxeko Biltzar Aretoan.



## DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



## GAZTEENTZAKO MODA

## BARREnek Emakunde-ren sarietako bat jaso du kirol kazetaritzan



**Ainhoa** Lodoso BARREneko kazetariarentzat izan da aurten go Emakunde sarietako bat. Sariak ikusentzunezkoen alorrean, prentsa orokorraren alorreran eta kirol informazioaren atalean eman zituzten. Azken atal honetan, BARREneko kazetariak ohorezko aipamena jaso zuen. Ekitaldiak Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zuen buru. Lehendakariak gain, Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak

eta Itziar Fernandez idazkari nagusiak ere hartu zuten parte. 1993ko Emakunde sarien epaimahaikideak honako hauek izan ziren: Itziar Fernandez Emakundeko Idazkari Nagusia, Begoña Azarloza Eusko Jaurlaritzako Kultur saileko Laguntza Batzordeko zuzendaria, Arantxa Lazkano zinema zuzendaria, Pedro Ramos Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua, Ramon Trecet kazetaria eta Manu Leginetxe kazetaria.

## Jaiotza Morkaikon

Morkaiko Mendizale Elkartek Morkaiko mendian jaiotza ipintzeko asmoa dauka igande honetan, hilak 19. Irteera tokia Plaza handia izango da eta ordua, goizeko 9ak. Gabonetan Morkaiko mendian jaiotza jartzea aspaldiko ohitura omen da. Aurten, gainera, jaiotza berria egin da eta estreinaldirako, inoiz baino jende gehiago bildu nahi du Morkaikoko zuzendaritzak. Deialdia, herritar guztiei zuzendua doa, ohitura honek gaurdaino adina denbora iraun dezan.

## Txankakuaren kanpaina

Elgoibarko Txankakua Merkataria eta Zerbitzu elkarte Gabonetako kanpaina burutzen ari da eta bere bezeroen artean zozketa baterako txartelak banatzen ari da abenduan zehar. Zozketa urtarrilaren 10ean egingo da eta sariak 40.000ko 6 txeke izango dira.

## Komiki ikastaroa

Kokoe komiki elkarteak komiki ikastaroa antolatu du adin guztientzako pertsonentzat eta dohainikoa. Ikastaroa goizez izango da hilaren 27tik 30era bitartean. Informazio gehiago eskuratzeko 74 21 58 zenbakira deitu. Komiki lehiaketaren sari banaketa igandean, hilak 19 egingo da Kultur Etxean eguerdiko 12etan.

# HITZALDIA

## "JABETZA INTELEKTUALA ETA BERTSOLARITZA"

### HIZLARIAK

**ANDONI EGAÑA:** Bertsolaria eta Euskal Filologian lizentziatua.

**SANTI GOÑI:** Jabetza intelektualean aditua eta Zuzenbide Zibileko irakaslea.

**GERMAN MEABEBASTERRETxea:** Zuzenbide ikaslea eta lanaren egile. Bertsolaria

**NOIZ** Abenduaren 23an, osteguna. Arratsaldeko 7etan.

**NON** Kultur Etxean.

Gabonak  
Bertsotan 93

ANTOLATZAILEA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



# "Ideiak diruak mugatzen ditu"

Nicolas Molina, Jaenen jaio zen, baina duela 22 urte etorri zen Elgoibarrera.

Urte osoan zehar, denbora librean hobby gisa jarduten du jaiotzako irudiak egiten. Elgoibarko lehengo

jaiotza orain dela 12 urte jarri zen Antton Zabaletaren aitagarrearen eskutik. Eta gaur egun, lanean diraute muga ekonomikoak gaindituz, umore eta lan giro atseginaren poderioz.

**- Noiz eta nola hasi zinen jaiotzerako irudiak egiten?**

-Duela lau urte, Gemma Monrealen bitartez sartu nintzen mundu honetan. Ikusi nuen zer zen, gustatu zitzaidan eta ondoren iruditxoak egiteari ekin nion. Lehenengo urtean hiru egin nituen. Urtetik urtera gehiago egin ditut; nolabait lana perfektionatzen joan naiz, nahiz eta aurretik inolako esperientziarik ez izan.

**- Zertan oinarritzen zara irudiak egiteko orduan?**

-Eguneroko bizitzan, baina ez gaur eguneko bizimoduan, baizik eta aintzinako abeltzain, baserriar eta abarretan.

**- Zer prozesu jarraitzen duzu irudiak egiteko?**

-Lehenengo irudia aukeratzen dut, ondoren, gorputzaren forma egunez egiten diot, gero mugimenduaren arabera antolatzen joaten naiz. Azkenik, pertsona jasaten dut. Nik patroiak egiten ditut eta nire amaginarrebak josten du, batez ere, astirik izaten ez dudalako nik.

**- Prozesu guzti honek zenbat denbora darama**



**"Saiatzen gara gazteak ere sartzeko jarraitasun bat izan dezan."**

**eta zer nolako zailtasunak ditu?**

-Ni urte osoan zehar aritzen naiz lanean. Ama-birjina eta San Jose hamabost egunetan egin ditut, besteak, aldiz, bi hilabete zein lau hilabete-tan egin ditut.

Zailtasunei dagokienez, pentsatuta daukadan mugimendua isladatzea da zailena.

**- Irudi hauei bizitza eman ahal izango bazen, zeini emango zenioke?**

-Bizitza eman denei

emango nieke, baina niretzat bereziena "noria" da, beharbada lehenengo egin nuena delako. Baita alfombra astintzen duen andreak ere. Noria "Indiana Jones" filmean ikusi nuen eta bertatik hartu nuen ideia.

**- Zenbat pertsonak hartzen du parte jaiotzaren muntaian?**

-Zortzirentzat gaude, hiru gazte ere badira gurekin eta saiatzeko gara gazteak sartzeko honek jarraipen bat izan dezan.

**- Diru laguntzei dago-**

**kionez...**

-Dagoeneko 300.000 pezeta baino gehiago kostatu zaigu. Udaletxeak diru laguntza eskaxa eman digu, "Asociacion de Belenistas"ek zertxobait, eta bestela hemen jartzeko ditugun itsulapikoetatik eta elizak aste-bukaera batean ateratzen duena ematen digu. Baina hori ez da nahikoa. Ideiak denok dauzkagu baina ezin ditugu aurrera eramanez, diruaren arabera mugatuak bait gaude.

**- Aurtengo jaiotzaren berrikuntzarik bai?**

-Berrikuntza ugari, Ama Birjina eta San Joseren mugimenduak, hamar ibiltari etxe ilara batetik, atso bat haurra sehaskan duela, arotz bat eta tximiniako kea besteak beste.

**- Noiz arte egongo da jaiotza ikusgai?**

-Aurkezpena abenduaren 21ean izango da, prentsa eta telebistaren aurrean eta Udaletxeko-entzat. San Anton egunera arte egongo da ikusgai Leku Eder-eko lokalean, ikusi nahi duen guztiari gonbidapena luzatzen diogularik.

**Maite Iriondo**

## **Iñaki Beristain**

### *Edari banatzailea*



- **Zenbat urterekin hasi zinen lan honetan?** - 12 edo 13 urte nituela nire anaiarekin hasi banintzen ere, 16 urte nituela seriooki sartu nintzen lan munduan.
- **Zer da gehien saltzen dena?**
  - Besteekin konparatuz Coca-Cola dela esango nuke.
- **Asko igotzen al dira salmentak garai honetan?** - Bai, zer edo zer igotzen dira, baina Gabonak bi egun besterik ez dira.
- **Zenbat ordu lanean?** - Egun batzutan besteetan baino gehiago, zubiak, jaiegunak etab... direla eta.
- **Indar asko al daukazu?** - Keba, itxura besterik ez da.
- **Nor edo zer izatea gustatuko litzaizuke?** - Ni neu; nahiko lortua dudala pentsatzen dut eta, egia esan, ez dut inolako modelurik.
- **Zer suposatzen du zuretzat goizean goizeko ordulariaren alarmak?** - Ez daukat ordu finkorik, 4,30ak aldera jaikitzen naiz.
- **Garagardoa ala ardoa?** - Txikiteorako gorriak eta, gauerako garagardoa, baina, egia esan, nahiago ditut Gintonic-ak.
- **Hobby bat?** - Kotxeen munduarekin zerikusi duen gutzia.
- **Zure gorputzeko zein atal duzu gustukoena?** - Nire eskuak.
- **Egunon ala gabon?** - Gabon. Egunon esatean nahiko malaletxea daukat.
- **Nor gonbidatuko zenuke zerbait hartzera?** - Edozein, lagun asko baitituz.
- **Erosi al duzu aurten loteriarik?** - Bai asko, ia Elgoibarko taberna guztietan.
- **Tokatzeotan, zer?** - Bizitza lasaiago eta hobeago bat eramango nuke, baina ez nuke lan hau utziko.
- **Opariak egin ala hartu?** - Hartu. Egitea ere gustatzen zait baina besteen urtebetetze egunetaz ahaztu egiten naiz.
- **Zer eskatuko zenioke urte berriari?** - Lana, osasuna eta mundu guztiarentzako zoriontasuna, bizitzeko oso garrantzitsua baita.
- **Iñaki ala Beris?** - Beris.

Isabel Ansola

## **BERTSOTAN**

### **EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA**

Andoni Egaña  
Sebastian Lizaso  
Jokin Sorozabal  
Anjel M. Peñagarikano  
Xabier Euzkitze  
Unai Iturriaga  
Haritz Lopategi  
Jon Enbeita

Donostia, 1993-12-19  
ANOETA belodromoan  
Goizeko 11ak  
Arratsaldeko 4,30ak

*Aranburu*  *Bitxidenda* San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35

### **Gabonetako eskaintza berezia**

**Urrezko bi erloju zozketatuko ditugu!**

Zatoz eta 1.000 pezetako gastuagatik zu ere zozketan sartuko zara.  
Zozketa 1994ko urtarrilaren 5an izango da dendan.

*Zure zai  
gaude!*

## Emaizta ezin hobek Elgoibarko judokentzat

Angel Mari Albizu judoka elgoibartarrak urrezko domina lortu zuen joan den abenduaren 8an, Lisboan jokatu zen judoko nazioarteko txapelketa absolutuan. Angel Marik Euskadiko Selektzioarekin borrokatu zuen. Bestetik, Aitor Garatek, hilaren 11an Azpeitin jokatu zen VII. Kimura txapelketan, zilarrezko domina eskuratu zuen.

## Usakume tiraketa

La Union elkarteak tiro pitxon txapelketa antolatu du larunbaterako, hilak 18, goizeko 10,30etan eta arratsaldeko 2,30etan herritar eta bazkideentzat. Kaiola modalitatekoa izango da txapelketa eta Albitxuriko lurretan jokatu da. Bazkideek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 3.000 pezeta, hegaziak barne. Izena emateko epea egunean bertan amaituko da, arratsaldeko 4etan.

## Pilota partiduak San Migelen

San Migel auzoko Murkaikupe frontoian eskuzko binakako pilota txapelketaren kanporaketak ari dira burutzen. Igandean, hilak 19, finalerdiak jokatu dituzte Beraza eta Ramirezek Maguregi eta Lendinez bikotearen aurka eta Joxin eta Gabilondok Agirrebeña eta Olazarra II. aren kontra. Finala hilaren 26an izango da eguerdiko 12etan Murkaikupe frontoian. Txapelketan 11 bikotek hartu dute parte.



Zigor Esnaola:

## "Datorren urtean agian Elgoibarren jokatuko dut"

- **Noiztik eskubaloian?** - Betidanik. Elgoibarren hasi nintzan infantiletan. Futbolian ere ibili nintzan eta han esan ziaten Arraten jokatzeko oportunitadadia zauzala. Lengo urtian Arratera jun nintzan, Elgoibarko beste laurekin batera.

- **Zer moduz Arraten?** - Aurten 2. nazionalean nago baina iaz goiko ekipoan egon nintzan. Suertetxarra euki naban. Bihatzta apurru eta ezin izan nuen erritmoa hartu. Gainera, beste pibotia oso ona da eta ni pibote izan arren, berak jarraitzen du. Pibote bezela jubenetan hasi nintzan, nahiko berandu. Hortik bigarren mailara egin naban salto eta bi kategorietan jokatzeko naban. Gero haundixen entrenadoria nigan fijasen hasi zan eta hurrengo urtian primerako ekipoan egon nintzan.

- **Disziplina aldetik, gogorra al da eskubaloia?** - Primerako ekipoan zaudenian gogorra da. Faltak justifikatu egin behar dira eta bizperan ere ezin da juergarik egin. Entrenadoriak hungaruak dira, eta oso disziplinuak.

- **Nola daramazu lesioen kontua?** - Kirola ona da baina lesioak eukitzen dira. Lau aldiz euki dit igeltsua. Eskumuturra apurru izan dot, eskuko bihatza, ligamentuak eta txikitan beste zerbait ere bai.



- **Zer da Elgoibarko eskubaloian falta zaiona?** - Ezebez. Haseran gogo gehixao. Basea ere falta zitzaion. Datorren urtian senior ekipoa ateratzeko asmua daukate. Orain arte irizpidea falta izan zaiela uste dot baina orain klub deportiboarekin badaukatela uste dot.

- **Ekipoan izango al zara?** - Klubeko presidentiakin hitz egiten egon ginan ni eta Manolo, Arraten dabilen beste elgoibartar bat eta, aurtengo denboraldia nola buka-tzen dugun ikusi behar.

- **Beste kirolen batean aritzea gustatuko litzaizuke?** - Futbolian hasi nintzan baina ez nintzan ona. Saskibaloia, berriz, gustatzen zait baina oso mugatua da. Eskubaloian, dana dala, suertea euki dot.

• Adina: 21.

- **Neguko kirolak gogoko al dituzu?** Bai. Fondoko sky-a..
- **Kirolaren alde txarra?** Lesioak.
- **Zaletasunak:** Musika, irratia eta mendia.

**Kafetegia**

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanada Baserriko ogia

B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

# Lagun Taldea, 94ko denboraldirako prest

**Elgoibarko Lagun Taldea osatzen duten txirrindulariek errepedeak eta bizikleta alde batera laga, eta Kiroldegiko frontoian neguko entrenamenduari ekin zioten duela bi hilabete. Hasera lasaia izan bazuten ere, oraintxe, gogor ari dira datorren urteko denboraldia ondo baino hobeto hasteko.**

**Lagun** Taldeko txirrindulariek astearte eta ostegunero arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean Kiroldegiko frontoia erabiltzen dute beraien entrenamendurako. Neguko prestakuntza gimnasia eta korrikan oinarritzen da batez ere. Lehen ordu erdian saltaka egiten dute eta gai-nontzeko astia gorputza lantzeko erabiltzen dute. Txirrindulari izandako Tomas Salegi entrenatzaileak esan digun bezala, "entrenamenduetan, fondo piska bat hartzen eta bizikleta gainean lantzen ez diren gorputz atalak jorratzen saiatzen gara". Entrenamendu lanetan, Tomas Salegiz gain, Felipe Callejak eta Adolfo Alkortak jarduten dute eta mutikoen guraso den Lorenzo Amutxastegik



← Neguko entrenamenduari gogor ekin diote Lagun Taldeko txirrindulariek.

laguntza ematen die.

Astebukaeratan ere, entrenamendua ez da alde batera lagatzen. Larunbatetan mendira irteten dira mendiko bizikletarekin ibiltzera eta igandetan, lau bat orduz mendian ibiltzen dira oinez.

Neguko entrenamendua hilaren bukaerara arte luzatuko da. Urte berriarekin batera, igandetan lasterketak korritzen hasiko dira. Dena den, astean bi egunetan Kiroldegian entrenatzen jarraituko dute.

Lasterketen denboraldia, uztailen bukatu zuten batzuek eta urrian

besteek eta, martxoan, berriz hasiko dira denboraldi berriarekin. Salegik esan digunez, aurtengo asmoa, "iazko Euskadiko Txapelketan izandako garaipena berdintzea behintzat" izango litzateke.

Entrenamenduetan kadete mailako bi taldeekin batera, jubenilekin eta afizionatuekin batera, eskolarteko jokuetan parte hartzen duten haurrek entrenatzen dute. Hauen ardura-dun Adolfo Alkorta da eta asteburuetan Urkulura joaten dira goiza pasatu eta bizikletan ibiltzera.

## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 4 - La Salle 0 (Infantilak)  
 Elgoibar 1 - Hamaika bat 0 (Jubenilak)  
 Elgoibar 3 - Zumaiako 3 (Neskak)  
 Sodupe 1 - Haundi 1  
 Ondarru 5 - Elgoibar 1 (Kadeteak)  
 Antzuola 2 - Elgoibar 3 (2. erregionala)

### Eskubaloia

Elgoibar K.E.E.T. 18 - Urnieta 18 (Neskak)  
 Elgoibar K.E.E.T. 13 - Bergara 17 (Kadeteak)  
 Elgoibar K.E.E.T. 33 - Tolosa 17 (Jubenilak)  
 Elgoibar K.E.E.T. 15 - Zarautz 16 (Neskak)

### Areto futbola

Ibarra 3 - Elgoibar A.F.4 (1. maila)  
 Astilleru 3 - Elgoibar A.F. 3 (2. maila)

## KIROL AGENDA

### Futbola

Mintxetan. **LARUNBATA 18**  
**10,00:** S.D.Eibar - Aldapetarrak (Jubenilak)  
**12,00:** Elgoibar K.E. - Aloñamendi (Kadeteak)  
**16,30:** Elgoibar K.E. - Urki (2. erregionala)  
**18,15:** Urki - Bergara (Jubenilak)

### IGANDEA 19

**10,00:** Urki - Eibartarrak (Jubenilak)  
**12,00:** Eibartarrak- Lagunak (Neskak)

### Pilota

San Migeleko Murkaikupen. **ABENDUAK 19**  
**12,00:** Beraza eta Ramirez - Maguregi eta Lendinez  
 Joxin eta Gabilondo - Aguirrebeña eta Olasarraga II

### Eskubaloia

Kiroldegian. **IGANDEA 19**

**12,00:** Elgoibar K.E.E.T. - Jauja (Neskak)

### Areto Futbola

Kiroldegian. **OSTIRALA 17**

**12,30:** Elgoibar F.S.. - Paff Kabitxo (1. maila)



# Caritas: herritarren beharrei erantzuten

**Gutziz zehatza ez bada ere, duela 35 urte inguru sortu zen gure herriko Caritas. Eliz barrutiko elkarte da eta herrian, 10 lagunek borondatez egiten dute lan, herriko behartsuen egoera ahal den neurrian arintzeko.**

**Caritas** elkarteak urte osoan zehar hainbat kanpaina burutzen ditu dirua biltzeko. Oraintxe, Gabonetako kanpaina hasi berria dute. Gabonak zoriontzearekin batera, etxez etxe diru bilketa egiten dute. Diru bilketa arrunta ohi da Gabonetakoa, Corpus egunekoarekin batera. Langabeziaren diru bilketa, apirilean eta irailean zehar egiten da. Diru bilketa honetatik, erdia, Donostiara bidaltzen da langabeziaren fondora. Kasu askotan, herri bakoitzean jasotzen den diru kopurua baino gehiago behar izaten da. Horregatik hilerro, Donostiako Caritas-i herri bakoitzak behar duen kopurua eskatzen zaio. Aurten, esaterako, 688.000 pezeta jaso dira Elgoibarren, eta banatu berriz, 1.600.000 pezeta banatu dira. Diferentzia, langabeziaren fondotik lortzen da.

Gaurregun Consuelo Garciak hartu du elkartearen ardura baina orain arte Jose Zuazubiskar-ek izan du lan hori. Elgoibarko Caritas Eibarko Artzapezgoaren barne dago, eta bertako arduraduna Jose Zuazubiskar da. Caritas elkarte guztiek Donostiako eliz barrutiko Caritas



Elgoibarko Caritas elkarte osatzen duen lagun taldea.

dute gaitetik. Donostiako Caritas-ek bailara bakoitzeko arazoak aztertzen ditu eta bertan egiten diren informesak herri guztietan banatzen dira.

Caritas-ek Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin harreman estua dauka. Batzutan, Zerbitzuaren bitartez helarazten zaie laguntza behartsuei. Beste batzutan, Caritas-ek ematen du dirua, Gizarte Zerbitzua atzeratu egin bada diru laguntzarekin.

Caritas-en diru laguntza jaso ahal izateko, familia edo pertsona batek dituen diru iturriak aztertzen dira. Honetaz gain, familia barnean egon daitezkeen arazoak ere aintzakotzat hartzen dira. Caritas-ek bere esku dauden soluziobideak eskaintzen dizkiete zenbait diru arazo konpontzeko. Diru laguntza hauek, epe mugatu batez ematen dira normalean; hiru hilabeterako, sei hilabeterako edo beste epe baterako izan daitezke. Diruaz gain, erropa ere banatzen

dute, baina beraiek esan digutenez, Elgoibarren ez dago erropa eskaririk.

Caritas-ek, gazteen heziketan ere lagundu du gas instalatzaileen ikastaro baten antolakuntzan parte hartuz. 15 bat lagunek lana topatu zuten ikastaroari esker. Drogazaleei, gartzelan daudenei eta orokorrean, beharra duen edonori ematen dio Caritas-ek laguntza.

Hemendik aurrera, Caritas-ek astean behineko jendearentzako arreta zerbitzu bat jarriko du Juan Mugerza kalean duen egoitzan.

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1958

**Presidentea:** Consuelo Garcia

**Kide kopurua:** 10

**Iharduera:** Behartsuen aldeko elkarte

**Egoitza:** Juan Mugerza kalea

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70



**ANCHUSTEGUI S.A.**

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behe  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
**20870 - ELGOIBAR**  
Gipuzkoa



# Musikeskolako ikasleak bikain aritu dira akordeoi lehiaketetan

**Inazio** Bereziartua Musikeskolako ikasleek Durangoko eta Arrasateko akordeoi lehiaketetan parte hartu dute zenbait domina eskuratu dituztelarik. Durangon ospatu zen Euskadiko III. Akordeoi Lehiaketan Iñigo Glariak "D" kategoriako 2. postua eskuratu zuen, saria eta 25.000 pezeta eskuratu zituelarik. Elisabeth Rotetak "C" kategoriako 3. postua lortu zuen. Elisabeth-ek 15.000 pezeta eta saria jaso zituen.

Hilaren lehen astean, berriz, domina ugari eskuratu zituzten akordeoijole elgoibartarrek Gipuzkoako VI. txapelketa eta "Villa de Arrasate" Nazioarteko I. txapelketa. Folklore sailean Maite Zubiaurrek urrezko domina lortu zuen eta Asier Elustondok zilarrezko domina. Hasera saileko "A" mailan ere Asier Elustondok brontzezko domina eskuratu zuen. Hasera saileko "B"



Iñigo Glaria eta Elisabeth Roteta akordeoijole elgoibartarrak saria jaso ondoren.

mailako zilarrezko domina Lorea Gabilondorentzat izan zen. "C" mailan, berriz, zilarrezko domina bana jaso zuten Mikel Arzamendik, Leire Eizagirrek eta Elisabeth Rotetak. Brontzezko domina Unai Lopezentzat izan zen.

# Gabonak bertsotan

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bertsolaritza inguruko hainbat ekintza antolatu ditu datorren asterako eta Gabonetarako. Ostiralean, hilak 17, Nagusien II. Etxegina Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa egingo da Aubi- xa aterpetxean gaueko 9etan. Ondoren, Elgoibarko Bertso Eskolaren sorreran partehartzeko zuzena izan zutenei omenaldia eskainiko zaie. Igandean, hilak 19, Donostiako Anoeta belodromoan izango den Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finala dela eta, bertara joateko autobusa antolatu du. Irte- era Sigmako zubian izango da goizeko 9,30etan.

Ekintzoi, datorren ostegunean, hilak 23, izango den hitzaldia gehitu behar zaie. German Meabebasterretxeak, Santi Goñik eta Andoni Egañak jabetza intelektuala eta bertsolaritzari buruz hitz egingo dute arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Bukatzeko, eta Gabonei puntua jartzeko, urtero bezala bertso jaialdia izango da abenduaren 30erako. Ekitaldia Kiroldegian izango da gaueko 10etan.

**egin EZ ITXI Adierazpen askatasuna**

**18an Manifestazioa Bilbon**

**Autobusa 4,30etan Plazan**

**HERRI BATASUNA**



**HALTZARIAK OLATZ, S.L.**  
*Gabon Zoriontsuak pasa!!*

Ofizinak eta erakusketa: Pedro M. Urruzuno, 8, Tel-Fax 74 38 44

17 Ostirala

22,15 ZINEA

"En la linea de fuego"

Tokia: Udaleko Biltzar Aretoa  
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba  
Zuzendaria: W. Petersen  
Aktoreak: C. Eastwood eta J. Malkovich.

18 Larunbata

10,30 eta 14,30 TIRO PITXON  
TXAPELKETA

Tokia: Albitxuri  
Antolatzailea: "La Union" elkarte

12,00 ZAZPIKIKO BILERA  
Gaia: Gabonetako programazio  
Tokia: Zazpikiko lokala

16,00 IRRATIZALETUEN  
BILERA

Gaia: Elkartearen legalizazioa  
Tokia: Kultur Etxea

18,00 KALE ANTZERKIA  
Taldea: Trapu zarra  
Antzeslana : "Visto y no visto"

22,15 ZINEA  
"En la linea de fuego"

19 Igandea

09,00 JAIOTZA JARTZERA  
MORKAIKON

Irteera tokia: Plaza handia  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

09,30 BERTSOLARI TXAPEL-  
KETA FINALERAKO  
AUTOBUSA

Irteera tokia: Sigmako zubia  
Antolatzailea: Antolatzailea

12,30 KOMIKI LEHIKETAREN  
SARI BANAKETA

Tokia: Kultur Etxea

12,30 BANDAREN KONTZERTUA  
Tokia: Ikastola

17,00 ZINEA  
"Hook"  
Haurrentzako sarrera: 150 pezeta  
Zuzendaria: S. Spielberg  
Aktoreak: R. Williams eta J. Roberts

19,30-22,15 ZINEA  
"En la linea de fuego"

20 Astelehena

22,15 ZINEA  
"En la linea de fuego"

23 Osteguna

19,00 HITZALDIA

Gaia: Jabetza intelektuala eta bertsolaritza.  
Hizlariak: Andoni Egaña, Santi Goñi eta German Meabebasterretxea.  
Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

20,00 KONTZERTUA  
I. Bereziartua Musikeskolako ikasle, Haritz Dantza taldea eta Udal Txistulari taldea.  
Tokia: Parrokia

24 Ostirala

11,00 OLENTZEROREN  
KALEJIRA  
Irteera tokia: Maalako parkea  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

12,30 BARREN SARIEN  
BANAKETA  
Tokia: Udaleko Biltzar Aretoa

15,00 NAGUSIEN OLENTZERO  
Antolatzailea: Gestorak

17,45 BANDAREN KALEJIRA  
ETA GABON KANTAK



Artegi LEHIAKETA

**ABENDUKO GALDERA:** Zein da gure aldizkarian gehien gustatzen zaizun atala? (Markatu gurutze batekin)

- Komikia
- Bertsotan
- Lau hankatan
- Besterik, Zein?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Abenduak 20an SONY telebista bat zozketatuko dugu erantzuten duzuenon artean.  
(Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARRENera. Nafarroa enparantza 2.)

**ZINEA**

**“En la linea de fuego”**

Mitch Leary  
 CIArentzat aspaldi lan egin zuen psikopata bat da. Berak Frank Horrigan poliziaren puntu ahula ezagutzen du. 1963.eko azaroaren 22an, Dallas-en Kennedy presidentea hil zutenean Horrigan bere alboan zegoen. Lehen tiroaren ostean, Horriganek ez zuen garaiz erreakzionatu eta ezin izan zuen presidentea bigarren tirotik, hil zuen tirotik, babestu. 30 urte eta gero Horrigan presidentearen babesle izateko kontratatuko dute.

**ZINEA**

**Etxebizitzak**

Etxe bat saltzen dut Urasandin. 1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Etxe bat daukat alokatzeko. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno kalean (Olatz altzari denda ondoan) **Tel.: 74 08 09**  
**3,30etatik - 7,30etara.**

**Lana**

Aizu etxeokandrea!, perfumeria apainketa eta kosmetikan ari den frantziar multinazional batek emakumezkoak behar ditu. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. **Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 51 04 53 zenbakira.**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Matematika, fisika eta kimika klaseak ematen dira BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz. **Javier Telf: 74 13 11**

**Salerosketak**

Eskaladarako 50 m. eta 11m.m. diametroko soka, arnesa, katu hankak (42-43), magnesio boltsa, segurtasun mosketoia eta zortzi bat saltzen ditut. **Gaueko 10,15etatik - 11etara 74 00 30 Imanol Azpiazu.**

Frigorifiko bat erosiko nuke. Ate indibiduldun kongeladore txiki batekin. Tel: 74 13 38 Eguerdian deitu

San Roke auzoan garaje bat daukat alokatzeko. **Telf: 74 33 78**

YAMAHA TZR 80 bat saltzen dut. **Tel: 74 41 12 Nekane**

Gasezko estufak erosiko nituzke. **Telf: 74 08 95 Maite**

Garaje bat saltzen da. Bi kotxerentzat espazioa eta leku onean. Modu onian. **74 23 44 eguerdiko 12ak baino lehen.**

Bigarren eskuko Renault 12 Bi- 1988 Y salgai. Prezio egokia. **Tel.: 74 41 32 Fernando**

OPEL CORSA GT 3 ate SS-AH saltzen da. **Tel.: 74 01 17**

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altilloa" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Brother trikotosa bat saltzen dut., bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea. **Tel: 74 18 51**

**kontaktuak**

Hi, gazte!! Traban dauzkaken diska, zinta eta konpaktokak, zaharrak, berrixak, oinguk eta lenguak jasotzen ditugu. Deitu arratsalde ZAZPIKlra 74 34 74 edo bialdu 70 postakutxatilara. Mila esker!!.

Karitasek familia bati emateko butano txikidun estufa bat behar du. Inork emateko bezala balu, deitu. **74 15 09 / 74 12 57**

Untzon taberna istera doanez, bertan dagoen tresneria salgai jarriko dugu. Kamarak, Kafetera, Ontziak, kazuelak... Informazio gahiago nahi duenak dei dezala **74 00 35** Jesusa.

**UNIFORM**

**JUARISTI Aroztegia**

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:  
 Ubitarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:  
 Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

# Ofimatika Informatika



**SUMOFIC**

San Antolin, 5 - Tel.: 74 41 02 - 20870 ELGOIBAR

**Kopiagailuak. Faxak. Idazkera elektronikoa**